

Ardoa, minagre



Jose Inazio
Basterretxea
IDAZLEA

Sarako Joanes Etxeberri, gauzak modu ilunean eta era desegokian azaltzen ibiltzea irudikatzeko, honela idatzi zuen hamazortzigarren mendean: “Arnoa kridatzen dute, eta minagrea saltzen”. Hau da, ardoa aldarrikatu, eta haren orde, ozpina eman.

Segitzen du Etxeberri bere irakurketarekin: “Sugearen propietatea dute (ardo-saltzaile horiek): sugeak xistuz dagoela ausikitzen du”. Hartara, txirulari txerrena, delako suge hori.

Etxeberriren narrasti musikaria kiribildu zitzaidan lepora lehengo batean, enkarguak egiten ari nintzela, erosgaien etiketak irakurtzen nembile-nean. “Gure” ardoen jatorri-izendapenak leitzen niharduen: *Rioja, Rioja alavesa, Errioxa arabarra, Navarra...* Eta horretan, letagin bik heldu zidaten.

Direnak eta ez direnak omen dauzka salgai merkatuak; baina, nik etxeak nahi etxerako, eta aurkitu ez. “Gure” ardoak ez baitaki euskaraz... Ingeles hutsezko etiketak aurkitu nituen. Gaztelania hutsezkoak. Hizkuntza horien nahasturan oinarritutako elebidun erdaldunak. Baina, euskarazkorik ez.

Edarien etiketatik informazio baliagarria –anekdotikoa baino, argigarria eta beregaina– euskaraz jaso nahi baldin banuen, txakolina eros nezakeen, sagardoa, garagardoa... baina ardo beltz arabarrik ez, ezta ardo gorri nafarrik ere. Non daude? Ala, ez dago?

Lehiakortasunezko norgehiagokaren barruan, merkatu-esparru jakin bat eskuratu nahi dute “gure” ardogileek. Diotenez, leku propio bat nahi dute, berezia eta berezia: haien ardoa den lekukoa delako eta egiten den moduan egiten delako. Araba aipatzen dute batzuek, euren autoretzaren giltzarri. Nafarroa beste batzuek. Baigorri.

Araba, Nafarroa... euskara tanta bat etiketaren baituetan; euskara batere ez etiketa askotan eta askotan. Salbuespenak ba omen dira; baina, salbuespen. Arabako eta Nafarroako ardogle horiek nora begira jarrita dauden ez nuke publikoan esan gurako....

Ekonomia-arrazoi bat da lekukotasunaren errebindikazioa. Logiko, zilegi eta beharrezkoa. Merkatua dute jomugan enpresa txiki eta handi horiek, kutxa erregistratzaileari so bizi baitira. Horretara dator autoretzaren aitortza etiketan atxikitzea. Eskertzekoa da, bestalde, zer nondik datorren azaltzea.

Baina informazio-ohar izateaz gain, etiketak badira, izan, irudi, erakusleho, seinale, lorratz... ia-ia pasaporte. Nortasun-agiri.

Gauza serioa dira publikoari erakusten zaizkion dokumentuak, administrazioek bermatu behar dituzte bertako adierazpenen egitasuna eta egokitasuna. Eta euskarak, lekuri ez etiketa, irudi, erakusleho, seinale, lorratz eta nortasun-agiri horietan... Ardo onak galtzeko eta ozpintzeko lehen urratsa, hortxe. ■

Hedabideen manipulazioa: adibide bat



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Pasa den maiatzaren 9an *Diario de Navarra* egunkarian Iruñeko gaztetzetako batek, Errotxapea auzokoak, orrialde oso bat hartu zuen: “*Vómitos, ruidos y hurtos, el colmo vecinal por el gaztetxe*”.

Artikulua irakurtzen hasi eta auzokideak ez dira antolatu, ez da inolako prentsaurreko edo adierazpenik egon, ez istilurik. Berri hau argitaratzeko ez dago motibazio agerikorik. Kazetaria auzora hurbildu eta galdera batzuk egin ditu.

Bat, bi, hiru, lau, bost auzokideren testigantzak. Batek eraikinen utzikeria egoeraz, beste batek: “*Incluso drogas*”, hirugarrenak: “*Mi abuela está agobiada*”; gero: “*Pedimos su desalojo*” eta azken

bat zarataz kexu. Okaden eta zikintasunaren arrastorik ez. Lapurretei buruz, “*pequeños hurtos en los balcones*”. Igual lorontzi bat hartu du norbaitek? Egia ere ez da izango. Gertaera “hain larri” hauek idatzera oso sentsazionalistaz, oinarri gabeko baieztapenez, handizkatze eta ahoberokeriez josita daude. Eta lotsarik ez. Azalera, argazki eta guzti: “*Vecinos de la Rochapea contra el gaztetxe*”.

Hasia da UPN hauteskunde aurre-kanpaina prestatzen, okupazioa eta gaztetzak hautatu ditu euren armen jomuga. Bagenekien. Badakigu ere hedabideen papera zein den. Baina mesedez, duintasun apur bat, gutxienez. ■